

# ORRI BURUAK

*Kanpo Erabilera – Hizkuntz paisaia*  
*1.6.2.a.-2- Idazkiak. Orri-buruak*

## **AZALPENA:**

Askotan, enpresa edo elkarteko idazki ofizial bat igortzerako orduan, nahiz eta elebidun edo euskaraz bidali, enpresaren logoa, helbidea eta gainontzeko datuak erdaraz joaten dira orri buruan (bai gutunetan, bai fax orrietan, bai karpetan, baita gutun-azaletan ere).

Hori ekiditeko, orri buru edo sinbolo horiek euskaraz edo ele bietan egotea da gomendagarriena. Ez bakarrik idatzitakoarekin koherentzia mantentzeko eta enpresak euskararekiko duen filosofia mantentzeko, baizik eta bezeroak ere horretaz ohar daitezten.

Gainera, helburu horietarako erabiltzen den formatu berdina bisita txarteletarako ere erabil daiteke.

Normalean, orri burua, idazkiaren goiko aldean eta ezkerrean kokatzen da.

## **ADIBIDEA:**

**ANTXON  
HORNIDURAK  
Suministros**

IBARRA industrialdea z/g  
p.ku / apdo. 25  
Tel-Fax: 945 777 777  
01470 AMURRIO (Araba)